

EH BILDUK AURKEZTEN DUEN HIPODROMO ATZEKALDEKO ERREPIDEA ETA LANDABERRI IKASTOLARI BURUZKO MOZIOA

Beraien egunerokotasunean, Lasarteoriatar askorentzat Hipodromoko zubia Landaberri-Bugati inguruarekin lotzen duen errepidea da bide erabilitakoena. Multzo handi bat, beraien aisialdi osasuntsua garatze aldera, bertatik paseatzen duten oinezkoek osatzen dute.

Baina, kopuruz eta maiztasunaz, kolektibo garrantzitsuena da Landaberri ikastolara joaten diren umeena. Egunean lau alditan, umez kargatutako autobusek beraien joan-etorria egin behar dute hipodromoaren atzekaldeko errepide estutik; 31 pasaldiak, guztira. Arriskuak eta arazoak begibistakoak dira ikusi nahi duen edonorentzat.

Ikastolako autobusen arazo eta arriskuak, ordea, ez dira amaitzen ikastolako sarbidera iristean. Sarbidetik gorako aldaparen egoera ez da hobea. Autobus eta kotxeek malabarismo arriskutsuak egin behar dituzte egunero sarrera-irteeretan. Baina ez hori bakarrik, aldaparen hainbat zatitan lur jauziak sortzeko moduko pitzadurak sortu dira galtzadan.

Landaberriko umeentzako arazoak areagotu egiten dira ikastolak pairatzen duen beste gabeziatik: jangela ez izatea. Jangelaren faltak areagotu egiten baitu autobusen joan-etorrien beharra, horrek dakartzan aipatutako arazo eta arriskuak, batetik; eta umeentzako dakarren mugitzeko beharra eta joan-etorrietako neke eta denbora galtzea.

Aurreko guztiak kontutan hartuta. Lasarte-Oriako EH Bilduren udal taldeak ondoko akordioa onestea proposatzen dio Udal Batzarrari:

- 1.- Lasarte-Oriako Udalak Donostiako Udalarari Hipodromo atzekaldeko errepidean egin beharreko lanak egitea eskatzen dio, bai oinezkoek eta bai Landaberri Ikastolara doazen autobusek pasabide seguru eta eroso edukitzeko.
- 2.- Lasarte-oriako Udalak konpromezua hartzen du Landaberri Ikastolarako aldapan egin beharreko lanak egin bertarako kotxe eta autobusentzako bide seguru eta eroso izateko.
- 3.-Lasarte-Oriako Udalak Hezkuntzako Delegaritzari Landaberriko Ikastolan jangela jartzea eskatzen dio.